

Haur eta gazteentzako liburuetarako gai-sarrerak

Alberto Villalón

Lankideak:

Raquel López Royo
Ángela Marcos Sánchez
Vega Villar Gutiérrez de Ceballos



Lan honek helburu zehatza dauka: hizkuntza kontrolatua sortzeko bide aurrera egitea, behar-beharrezkoa baita informazioa trukatu ahal izateko eta informazio horren sakabanatzea saihesteko. Hainbat urtetako jardunaren ondoren, askotariko gaietan adituak diren lau espezialistaz osatutako lantaldeak bi mila erregistrotik gorako zerrenda hau aurkeztu du. Zerrenda honek antolamendu-gida bat izan nahi du, zentroei –liburutegi, eskola eta abarri– lagungarri izango baitzaie gai samurrak, eta oinarritzat edo interesgarriztat jo daitezzenak, aukeratzekoan; horrela, erabiltzaileei erreferentziako nahiz fikzioko liburuen eskuragarritasuna errazteko. Germán Sánchez Ruipérez Fundazioaren Haur eta Gazteentzako Literaturaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak informazioa prozesatzen eta berreskuratzen duen esperientzia izan da lan honen oinarri praktikoa.

③ Liburutegi bilduma
Colección bibliotecas

Haur eta gazteentzako liburuetarako gai-sarrerak

Alberto Villalón

Lankideak:

Raquel López Royo

Ángela Marcos Sánchez

Vega Villar Gutiérrez de Ceballos

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2006

VILLALÓN, Alberto

[Encabezamientos de materia para libros infantiles y juveniles. Euskara]

Haur eta gazteentzako liburuetarako gai-sarrerak / Alberto Villalón ; lankideak, Raquel López Royo, Ángela Marcos Sánchez, Vega Villar Gutiérrez de Ceballos. – 1. argit.
– Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2006
or. ; cm. – (Liburutegi bilduma = Colección bibliotecas ; 3)
1. Euskal gaien izenburuak-Zerrendak. I. Izenburua. II. Euskadi. Kultura Saila. III. Bilduma. 025.43=361

Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da eta berorren helburua da era guztietako jarduera kulturalak antolatzea, sustatzea eta garatzea. Erakundearen jarduera espezifikoetako bat argitaratze-lana da, eta eginkizun horren barruan kokatzen da Fundazioak eta Pirámide argitaletxeak elkarlanean argitaratutako BIBLIOTECA DEL LIBRO bilduma.

Jatorrizko obra: *Encabezamientos de materia para libros infantiles y juveniles*, Madrid, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, 1994.
Argitaraldia: 1.a, 2006ko abendua
Ale-kopurua: 500 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz
Itzulpena: Itzulzaile Zerbitzu Ofiziala. IVAP
Azala marraztea: Canaldirecto • www.canal-directo.com
Fotokonposizioa: EPS, S.L.
Inprimatzea: Gráficas Santamaría, S.A.
LG: VI-557/06

Betidanik, liburuak, paperezko altxor horiek, oparirik kuttunenetakoak ditut, bai jasotzeko bai egiteko. Guztiok, ziur naiz, gordetzen dugu gure txikietako ipuinen bat, gure seme-alabei noizbait emateko ilusioarekin.

Egungo haur eta gazteen liburuetan, bestalde, etorkizuneko gizartea idazten ari gara, gure ume eta gazteek gaur irakurtzen dutena bihar gauzatuko dute eta.

Ezjakintasunak sortzen dituen arazoen aurrean, edozein momentu eta tokitan liburu bat armarik eraginkorrena dugu. Horixe bera lortu beharko genuke: haur eta gazteek barnera dezatela edozein zailtasunen aurrean, ez dela ezer hoberik liburu bat eskura edukitzea baino.

Esku tartean duzuen *Haur eta gazteentzako liburuetarako gaisarrerek* lanak mota horretako liburuak antolatzen dituzten profesionalei laguntza eman nahi die umeen eta gazteen nahiei eta beharrei erantzuteko.

Miren Azkarate Villar
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua

Aurkibidea

Aurkezpena	9
Hitzaurrea	11
<i>Zerrenda</i> hau erabiltzeko jarraibideak	17
Liburuak erregistratzean gai-sarrerak ezartzeko iradokizunak	19
Gai-sarrerak ezartzean <i>zerrenda</i> erabiltzeko 105 adibide	21
<i>Zerrenda</i> hau prestatzeko erabilitako iturri nagusiak	27
Gai-sarreraren <i>zerrenda</i>	29

Aurkezpena

Gaur egunean, haurrentzako literatura liburutegi publikoen barruan nortasun beteko literatura bihurtzen ari da eta soilik haurrei eta gazteei zuzendutako irakurketa-guneak sortzen ari dira; horrek guztiak, eskoletan benetako baliabide- eta dokumentazio-zentroak eratu beharrekin batera, haur eta gazteentzako liburuei tratamendu zehatzagoa eman beharra ekarri du, irakurle gazteenen eskakizunak behar bezala bete nahian.

Germán Sánchez Ruipérez Fundazioaren Haur eta Gazteentzako Liburuaren Nazioarteko Zentroko liburutegian ikusi dugunez, batetik, haurrek eta gazteek gaikako katalogoetara jotzen dute eskolako lanak egiteko eta gai jakinen inguruko liburu fikziokoak nahiz informaziokoak eskuratzeko. Bestetik, *Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak*, liburutegien, hezitzaileen eta gurasoen eskariz, haur-literaturako gai jakin bati buruzko interesa edota irakurketa bultzatzeko gaikako bibliografiak zabaltzen ditu.

Hori guztia dela eta, haur-literaturaren inguruan diharduten zenbait erakundek gai samurrak erabiltzea erabaki dute erreferentziako nahiz fikzioko liburuen eskuragarritasuna errazteko. Zeregin nekeza eta subjektiboa da. Gai bat ezartzeko, lehendabizi, liburuaren

edukia ezagutu behar da eta, ondoren, liburua erregistratzen duen zentroarentzat —liburutegia, eskola etab.— oinarrizkoak edota interesgarriak diren gaiak aukeratu.

Zerrenda hau hainbat urtetako lanaren emaitza da, baina oraindik amaitu gabe dago eta irekia dago termino berriak sartzeko. Iradokizunen gida-antzeko bat izan nahi du, antolamendurako aukera bat, haur eta gazteentzako literaturaren edukiak gero eta hobeto ezagutzen laguntzea eta erraztea helburu duena.

Termino hauek, inolako loturarik gabeko hainbat zerrendatakoak izanik, ez lukete inolako antolamendurik eta zentzurik izango Alberto Villalón doktorearen esku-hartzeagatik izan ez balitz, thesaurusak egiten aditua eta hizkuntza kontrolatuetan oso jakituna baita. Bere jakinduriak ezarri ditu terminoen arteko erlazioak eta eman dio benetako moldea liburuari; berorri esker eskaini dezakegu haur eta gazteentzako liburuetarako gaien katalogoa eratzeko proposamen xumea dugun liburu hau.

HUR ETA GAZTEENTZAKO
LIBURUAREN NAZIOARTEKO
ZENTROA

Hitzaurrea

Liburu honen zertarakoa

Sarritan, haur eta gazteentzako literaturako liburute-giek eta dokumentazio-zentroek haur eta gazteentzako liburuei gai-sarrerak ezartzeko orientabide bila jotzen dute Germán Sánchez Ruipérez Fundazioaren Haur eta Gazteentzako Literaturaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentrorra (Salamanca, Espainia). Bestalde, arlo horretan diharduten erakundeen arteko harremanak gero eta ugarriagoak direnez, zenbaitetan hitzarmenak adosten dira informazioa trukatzeko, eginkizunak banatzeko, alferreko bikoizketarik gerta ez dadin, laguntzaileak lagatzeko etab. Horrek guztiak bultzatu du Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa liburu hau prestatzera Salamancako zentroaren esperientzia baliotsua erabilita. Lan honen helburuak oso zehatzak dira: informazioa prozesatzeko eta berreskuratzeke esperientzia hori beste erakunde batzuekin partekatzea eta hizkuntza kontrolatua sortzeko bidean aurrera egitea, behar-beharrezkoa baita informazioa trukatu ahal izateko eta informazio horren sakabanatzea saihesteko.

Edukia

Bi urteko lanaren ondoren, hainbat gaitan adituak diren lau espezialistaz osatutako lan-taldeak bi mila termino eta gehixeagoko *zerrenda* hau aurkeztu du. Ordena alfabetiko bakarrean honako hau jasotzen da:

- a) Gaiak ezartzeko erabili beharrekoak diren sarrerak, bi mila erregistroen gehiengoa osatzen dutenak;
- b) Gaiak ezartzeko orduan erabiltzen ez diren erreferentziak, sarreraren sinonimo edo ia sinonimo direnak, eta
- c) Azpisarrerak, sarrerak zehazteko erabiltzeko direnak.

Funtzio bikoitza duten sarrerak

Sarrerak letra larriz idazten dira, erreferentziak ez bezala, erreferentziek hasierako letra bakarrik baitaramate letra larriz. Sarrera batzuk, gainera, azpisarrerara gisa ere erabil daitezke, hau da, funtzio bikoitza dute. Hona hemen adibide batzuk:

- ATLASAK
- ALEGIAK
- ANTZERKIA
- ANTZINAROA
- ARO MODERNOA
- AZTERKETAK
- BIBLIOGRAFIAK
- BIOGRAFIAK
- BOKABULARIOAK
- DRAMAK
- ELEBERRIAK
- ELEZAHARRAK
- ENTZIKLOPEDIAK
- ERAKUSKETAK
- ERDI AROA
- ESKULANAK
- ESPERIMENTUAK
- ESTATUTUAK
- GAUR EGUNGO AROA
- GEOGRAFIA
- GRAMATIKA
- HISTORIA
- HIZTEGIAK
- INFORMAZIO-LIBURUAK
- IPUINAK
- IRAKASKUNTZA
- IRUDI-LIBURUAK
- KOMIKIAK
- OLERKIAK
- TURISMO-BIDEAK
- TURISMOKO GIDALIBURUAK
- URTEKARIAK

Sarrera orokorrak

Sarrera batzuk generoa adierazten dute eta espezie-ko-puru ezberdinak onartzen dituzte euren baitan. Genero eta espezieen arteko erlazioa goitik beherakoa edo paradigmatikoa izaten da, alegia, thesaurusetako «termino zabala – termino espezifikokoa» erakoa, ingelesezko siglen bidez oso ezaguna: BT (Broader Term) eta NT (Narrower Term edo Narrower Terms). Hona hemen sarrera generikoen eta espezifikoen adibide batzuk:

- ELIKAGAIK eta berorren espezieak AZUKREA, FRUITUAK, ZEREALAK etab.
- KONIFEROAK: ARAUKARIAK, PINUAK, ZEDROAK etab.
- DELITUAK: KRIMENAK, LAPURRETAK, SEXU-ABUSUAK etab.

Toki-mugak direla eta, sarrera orokor bakoitzaren azpian hiru espezie besterik ez dira jaso adibide gisa. Nolanahi ere, espezie guztiak dagokien sarrera generikoarekin erlazionatzen dira, nahiz eta hartan jasota egon ez. Adibidez, HEGAZTIK sarreraren ez da BELATZAK ageri, baina BELATZAK terminoa HEGAZTIK sarre-arekin erlazionatuta dago; ITSASONTZIK sarreraren ez da GALEOIK ageri, baina GALEOIK terminoa ITSASONTZIK sarre-arekin erlazionatuta dago; NATUR-ZIENTZIK sarreraren ez da ZOOLOGIA ageri, baina ZOOLOGIA terminoa NATUR-ZIENTZIK sarre-arekin erlazionatuta dago.

Sarrera elkartuak

Zerrenda hau Salamancako zentroan nola erabiltzen dugun azaltzeko 105 adibide prestatzea baliagarria izan da ikusteko zein den bidea funtzio bikoitza duten sarre-ekin eta azpisarre-ekin (gaia, tokia, kronologia, forma) sarre-er elkartuak eratzeko. Sarrera elkartu horiek ez zaizkio *zerrendari* gehitu; halaber, ez zaizkio *zerrendari* gehitu lanen izenburuak edo musikarien izenak. Liburutegi edo zentro bakoitzak liburuak erregistratzeko orduan *zerrenda* erabili ahala sortuko ditu era horretako sarre-erak, horretarako ezarrita dituen politikei jarraiki. 105 adibideak eratzeko 150 sarrera elkartu sortu ditugu, adibidez:

- ADOPZIOA - IPUINAK
 - AMAZONIA - ELEBERRIAK
 - MAITASUNA - OLERKIAK
- etab.

Azpisarre-erak

Zerrendan azpisarre-erak batzuk ageri dira adibide gisa, maiuskulaz idatzita. Ezin dira bakarrean erabili, baizik eta sarrera batekin batera. Honako hauek dira:

- ANTOLOGIAK
- ARAUAK
- AURKIBIDEAK
- AZTERLANAK
- BILDUMAK
- EGOKITZAPENAK
- ESKULIBURUAK
- GIDALIBURUAK
- JARDUERAK
- KATALOGOAK
- OHITURA ETA USADIOAK
- PERTSONAIAK
- PROGRAMAK
- SISTEMAK
- TEKNIKAK
- TESTUAK

Erreferentziak

Hizkuntza guztietan ugari dira sinonimoak edo ia sinonimoak diren hitzak. Informazioaren sakabanaketa saihestearren, bakarra aukeratu beharra dago sarrera gisa; gainerakoak erreferentzia gisa jasotzen dira. Sarre-eraren azpiko lehenengo paragrafoan erreferentzia edo erreferentziak ageri dira, aurretik HO (honen orde) laburtzapena dutela. Era berean, erreferentziek aukeratu den sarre-erara bidaltzen dute IK (ikus) laburtzapenaren bitartez. Jakina, bidaltze-oharrak elkarrekikoak dira. Adibideak:

- Abezeak
IK ALFABETOAK
- ABOKATUAK
HO Legelariak
- AHUNTZAK
HO Antxumeak
 Aumak
 Pitikak
- ALFABETOAK
HO Abezeak
- Antxumeak
IK AHUNTZAK

- Aumak
IK AHUNTZAK
- Legelariak
IK ABOKATUAK
- Pitikak
IK AHUNTZAK

Izen bereziak

Liburuari zentzuzko mugak ezartzearen, oro har, ez da izen berezirik jaso. Salbuespen gisa 48 sartu ditugu, honako hauek dira:

- AFRIKA
- AITA NOEL
- ALPEAK
- AMAZONAS IBAIA
- AMAZONIA
- AMERIKA
- AMERIKAREN AURKIKUNTZA
- ANDEAK
- ANTARTIKA
- ANTZINAROA
- ARO MODERNOA
- ASIA
- ASTE SANTUA
- BIGARREN MUNDU-GERRA
- BIZKAIKO GOLKOA
- BRONTZE AROA
- BURDIN AROA
- EGUBERRIAK
- ELBA IBAIA
- ERDI AROA
- ERRUSIAKO IRAULTZA
- EUROPA
- FRANTZIAKO IRAULTZA
- GAUR EGUNGO AROA
- GUADALQUIVIR IBAIA
- GURUTZADAK
- HALLEY KOMETA
- HARRI AROA
- HEGOBURUA
- HIMALAIA
- INDIAKO OZEANO
- INGALATERRAKO IRAULTZA
- IPARBURUA

- KARIBE ITSASOA
- KOBRE AROA
- LEHEN MUNDU-GERRA
- MEDITERRANEO ITSASOA
- MENDEBALDE URRUNA
- METAL AROA
- OLENTZERO
- OZEANIA
- OZEANO ANTARTIKOA
- OZEANO ARTIKOA
- OZEANO ATLANTIKOA
- OZEANO BAREA
- PAZKOA
- SANTIAGO BIDEA
- SEZESIO-GERRA

Ikusten denez, salbuespenen artean ez da ageri pertsona-izenik, ezta ezein herrialde edo hiriren izenik ere. Jakina, zentzoren batek edo liburutegiren batek *zerrenda* honetako salbuespenetan jasota ez dagoen izen bereziko gai bat —pertsona, literaturako pertsonaia, pertsonaia mitologikoa, jauregia, monumentua, basamortua, itsasoa, ozeanoa etab.— lantzen duen liburu bat erregistratu behar duenean, bere gai-sarrearen zerrendan liburu horren gaiaren izena sartu beharko du, ondoren dagokion azpisarrera jarrita. Adibidez:

- Charles Chaplinen biografia baterako, CHAPLIN, CHARLES - BIOGRAFIK
- Chartresko katedralari buruzko liburu baterako, CHARTRESKO KATEDRALA - AZTERLANAK (hala badagokio)
- Drakulari buruzko eleberri baterako, DRAKULA - ELEBERRIAK, etab.

Zehaztapen kronologikoak

Liburu baten gaiari dagokion garaia, mendea edo urtea(k) zehaztea beharrezkoa denean, gaiaren ondoren jar daiteke dagokion zehaztapena: HISTORIAURREA, V. MENDEA, 1500, 1923, 1930, etab.

Sexuaren trataera

Izenek forma ezberdina dutenean pertsonaiaren sexuaren arabera, hitz-elkarketaren bitartez adieraziko dira sexu bietakoak, euskarak berezkoa duen erabilerari jarraiki. Adibidez, SEME-ALABAK, ENPERADORE-ENPE-

RATRIZAK etab. Izen generikoren bat bada biak hartzen dituena horixe erabiliko da, adibidez, GURASOAK. Jakina, sexu bakoitzekoa zein bere aldetik denean sarre-ra, dagokiona erabiliko da, adibidez, AITAK, AMAK, ERREGAEK, ERREGINAK, etab.

Sarrera elkartuak eta azpisarrerak

Gai-sarreraren *zerrenda* osatzerakoan egileek sarrera elkartuak eratu zituzten. Sarrera elkartuak eratzeko bideak hiru dira: izenlaguna gehiturik, hitz-elkarketaren bitartez edo izenondoaren bidez. Adibideak:

- ETORKIZUNEKO BIZITZA
- HERRI-DANTZAK
- ZALDI HEGODUNAK

Baina liburuzainak edo dokumentalistak gai-sarrerak jartzerakoan, sarrera zehaztu beharra dagoela irizten diotenean, gai-sarrerari azpisarrera bat edo funtzio bikoitzeko sarrera bat gehi diezaioke. Adibideak:

- GORILAK - IPUINAK
 - INGURUMENA - HIZTEGIAK
 - KONTSUMISMOA - AZTERLANAK
- etab.

Zehaztapen geografikoak

Zerrenda honetan edozein sarrerari izen geografiko bat gehitzeko aukera ematen zaio liburuzainari edo dokumentalistari, erregistratzen den dokumentua kontinente, eskualde, herrialde, estatu etab. jakin bati buruzkoa den kasuetarako. Adibideak:

- ANIMALIAK - ESPAINIA
 - BANKUAK - NIKARAGUA
 - INDIARRAK - ERDIALDEKO AMERIKA
- etab.

Nolanahi ere, *zerrendan*, hainbat kasutan, hala nola arte-adierazpenak, herrialde jakin bati dagozkion gertaerak, literatura-generoak etab. izendatzeko orduan, eremu geografikoa zehazteko izenlagunak nahiz izenondoak erabili dira. Adibideak:

- EGIPTOAR ARKITEKTURA
- ESKULTURA MAIA
- HAITIKO FOLKLOREA
- INGALATERRAREN KOLONIZAZIOA
- PERUKO IPUINAK

Ez dago eragozpenik zentroak edo liburutegiak azpisarrera geografikoa erabili beharrean izenlagunaren edo izenondoaren bidea erabil dezan.

Argibide-oharrak

Sarritan erabiltzaileari sarrera erabiltzeko azalpenak edo kontzeptu jakin bati *zerrenda* honetan eman zaion esanahi zehatzaren inguruko azalpenak eman beharra ikusi da. Argibide-oharrak (AO) erabiltzea beharrezko edo komenigarria iritzi zaion kasuetan, erregistroaren bigarren paragrafoan jarri dira, HO paragrafoaren ondoren. Adibideak:

— ISTRIPUAK

- HO Ezbeharrak
Istripuei aurea hartzea
- AO Ikus, gainera, istripu-motak.
- Adibideak:
ETXEKO ISTRIPUAK
HEGAZKIN-ISTRIPUAK
ISTRIPU ATOMIKOAK
- etab.

— DANTZAK

- AO Erabili sarrera hau soilik dantzei buruzko liburu orokorretarako. Dantza jakin bati buruzko liburuak dantza horren izenaren barruan jasoko dira.
- Adibideak:
BALSA
BALLETA
POLKA
- etab.

— ZALDUNAK

- AO «Zaldiz ibiltzen dena edo zaldiz doana.» (DRAE).

Erabateko zehaztasuneko oharrak

AOetan generoaren espezie guztiak jasotzeko aukera izan denean, denak jaso dira, adibidez:

- ELEMENTU NATURALAK: AIREA, LURRA, SUA, URA
- GIZA ARRAZAK: ARRAZA BELTZA, ARRAZA GORRIA, ARRAZA HORIA, ARRAZA ZURIA
- ZENTZUMENAK: DASTAMENA, ENTZUMENA, IKUSMENA, UKIMENA, USAIMENA

Erlazionatutako sarrerak

Erregistroetan ager daitezkeen hiru paragrafoetatik azkena erlazionatutako sarrerei dagokie. ES horien helburua da erabiltzailearentzat jakingarria izan daitekeen informazioa jasotzen duten beste sarrera batzuen berri ematea. Adibideak:

- ALEZKO APAINGARRIAK
ES ESKULANAK
- SASKIBALOA
ES KIROLAK
- ZALDI HEGODUNAK
ES ANIMALIA MITOLOGIKOAK

Jarduera hedatuenetako batek ezartzen duenez, gai-sarrera termino orokor batekin erlazionatuz gero, ez dugu espezifikoeekin erlazionatu beharrik. Thesaurusen kasuan esan ohi denez, Broader Term delakoarekin erlazionatuz gero ez ditugu erlazionatuko Narrower Terms direnekin. Adibideak:

- Erlazionatutako sarrera ISTRIPUAK bada, ez dugu hauekin erlazionatzeko beharrik: ETXEKO ISTRIPUAK, HEGAZKIN-ISTRIPUAK, ISTRIPU ATOMIKOAK
- Erlazionatutako sarrera DANTZAK bada, ez dugu honekin erlazionatzeko beharrik: HERRI-DANTZAK
- Erlazionatutako sarrera DELITUGINTZA bada, ez dugu hauekin erlazionatzeko beharrik: GAZTEEN DELITUGINTZA, HAURREN DELITUGINTZA etab.

Animaliak eta zuhaitzak

Edozein hizkuntza kontrolaturen osagai berezkozkat hartzen dira laginketa eta aukeraketa. Sarrera askok termino orokorrak, termino espezifikokoak eta erlazionatutako terminoak jaso ditzakete, baina kontuan izanik, batetik, toki-mugak eta, bestetik, lehenengo saioa dela, mugak jarri behar izan dizkiogu lanari. ANIMALIAK sarreraren kasuan, baita, gutxiago bada ere, ZUHAITZAK sarreraren kasuan ere, erlazio-kopuruari dagokionez eskuzabal jakatu nahi izan dugu. Beste sarrera batzuk, ordea, askoz ere gehiago osa zitezkeen, adibidez, ELIKAGAIK, DANTZAK, ZEREALAK etab.

GSR Fundazioa

Komatxoen artean idatzirik dagoen AO askoren amaieran esaldi hori aurkituko dugu. Jakina denez, honako hau esan nahi du: Germán Sánchez Ruipérez Fundazioaren Haur eta Gazteentzako Literaturaren Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa (Salamanca). Esaldi horren bidez adierazi nahi da AO horiek zentro horren zerrendatik hartuak direla hitzez hitz, edota lan honetan parte hartu duten zentroko langileek idatziak direla edo idazten lagundu dutela edota testua onetsi dutela.

Osotasun eta erabatekotasun ezinezkoak

Ezein hiztegi kontrolatuk ezin ditu, ezta teorikoki ere, gai guztiak bildu, halaxe gertatzen baita ezagutzaren arlo guztietan. Ezein zigor-kodek ezin ditu gerta daitezkeen delitu guztiak zehatu, ezein sailkapen botanikok ezin ditu lore guztiak jaso, ezein atlasek ezin ditu herri guztiak azaldu, etab. Hori dela eta, *zerrenda* honetan, sarrera orokor bakoitzaren azpian espezieen hiru adibide besterik ez da adierazi, halabeharrez. Esan beharrik ez dagoela pentsa daitezkeen arren, merezi du argitzea zentro edo liburutegi guztiek sarrera berriak sortu ahal –eta behar– dituztela *zerrenda* honetan ageri ez diren gaietarako buruzko liburuak erregistratzen dituztenean edota gure iradokizunekin bat ez datozenean. Izan ere, adibidez, erlazionatutako sarreraren kasuan (ES) ez da erraza jakitea zein kontzeptu dagoen erlazionatuta kontzeptu jakin batekin; pertsona batentzat lotura nabarmena dena beste batentzat ez etab. Zerrendaren edizio hobetuak, hainbat bildumaren eta irizpideren aniztasuna jasoko dutenak, argitaratzeko asmotan, gure lankideei eskatu nahi diegu *zerrenda* honi sarrera, erreferentzia edo azpisarrera berriren bat gehitzen dioten bakoitzean, Salamancako Dokumentazio eta Ikerketa Zentroari jakinaraz diezaiotela. Gauza bera eskatzen diegu zerrendan edo erregistroen edukian akatsen bat edo inkongruentziaren bat antzematen dutenei, ezinbestean gertatuko baitira halakoak. Adierazitako muga horien guztien jakitun garelarik, *zerrenda* hau aurkezten dugu, apaltasunez, Espainia eta Latinoamerikako lankideen artean burutuko den ibilbide luzeagoko proiektu baten abiaburu izango delakoan.

Esker onak

Last but not least, eskerrak Germán Sánchez Ruipérez Fundazioari lan honetarako aukeratu nauelako; Zentroko funtzionario Raquel López Royo, Ángela Marcos Sánchez eta Vega Villar Gutiérrez de Ceballos lizentziadunei, Zentroko gaur egungo zuzendari Dolores González López Casero lizentziadunari eta zuzendari ohi Luis Vázquez lizentziadunari. Aurrenekoen esperientzia, gaiaren ezagutza eta borondate ona izan ezean egilea ez zatekeen proiektu hau hastera ere ausartuko. Bigarrenen lankidetzarako gogoia eta beroien langileek nirekin lan egin dezaten emandako baimenik izan ezean, López Royo, Marcos Sánchez eta Villar Gutiérrez de Ceballos lizentziadunek, liburu honen benetako egilekideek, ez zuketean beren denbora baliotsua erabiliko ni eskutik heldu eta ezezaguna nuen arlo honetan zuzentzeko. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

ALBERTO VILLALÓN

Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuaren esker ona:

Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzuaren zereginen artean dago liburutegien arloan euskararen erabilera normalizatzeko burutu beharreko ekimenak aztertu eta zehaztea. Horrela, zeregin horren barruan bibliotekonomiari buruzko euskarazko argitalpenen garrantziaz jabeturik, Liburutegi Zerbitzuak Alberto Villalónek zuzendutako *Haur eta gazteentzako liburutegietarako gai-sarrerak* lana aurkezten du.

Kultura Sailak eskerrak eman nahi dizkie bai Alberto Villalóni, bai Germán Sánchez Ruipérez Fundazioaren arduradun eta lankideei ere, lan honen itzulpena baimentzeagatik eta eskainitako erraztasun guztiengatik.

Zerrenda erabiltzeko jarraibideak

Gaiak zehaztea

Informazio-sistema guztietan, ordenagailu bidezkoa izan ala ez, eta erabilitako hizkuntza edozein delarik, liburuzainaren edo dokumentalistaren lehenengo zeregina —dokumentua erregistratu eta deskribapen bibliografikoa egin ondoren— dokumentuan lantzen den gai nagusia edo nagusiak zehaztea da.

Zenbat gai?

Liburutegi edo dokumentazio-zentro bakoitzak zehaztu behar du, arau orokor gisa, dokumentu bakoitzari ezarriko zaizkion gaien gehieneko kopurua. Kopuru hori zehazteko, erakundeak hainbat alderdi izan beharko ditu kontuan: zenbat langile dituen, urtean bataz beste zenbat dokumentu erregistratu nahi duen, zenbat erabiltzaile dituen, erabiltzaileok zein eratako informazioa eskatzen duten etab. Guk dokumentu bakoitzeko 3 edo 4 gai ezartzea gomendatzen dugu.

«Gehienez 4 gai» gomendatzen dugu uste dugulako kopuru horrekin, gehienetan, dokumentuan lantzen diren gai nagusiak jasotzen direla. Halaxe dela erakutsi digu Salamancako Dokumentazio eta Ikerketa Zentroan izan dugun zazpi urteko esperientziak. Jakina, batzuetan nahikoa izango dugu gai bakarrarekin eta oso gutxitan erabili beharko ditugu hiru edo lau. Lautik gorako kopurua gehiegizkoa iruditzen zaigu, ez bada langile asko eta aurrekontu behar bezain bestekoa duten liburutegi eta zentroen kasuan.

Nolanahi ere, esan beharra dugu kontrakoa iritzirik ere badela —gutziz errespetagarria, noski—, zeinaren arabera zenbat eta txikiagoa izan zentroa edo liburutegia, orduan eta handiagoa izan behar duen dokumentu bakoitzari ezarritako gaien kopurua. Horren helburua erregistratutako dokumentu-bilduma xumeari ahalik eta etekinik handiena ateratzea da.

Gaiak eta gai-sarrerak

Gai nagusia edo nagusiak zehaztutakoan, liburuzainari edo dokumentalistari dagokio gaiok sarrera gisa nahiz erreferentzia gisa *zerrendan* jasota dauden egiaztatzea. Hiru egoera gerta daitezke:

- a) Gaia edo gaiak sarrera gisa jasota egotea;
- b) Erreferentzia gisa jasota egotea, alegia, sarreratzat aukeratu den sinonimo edo ia sinonimora bidaltzen duen sinonimo edo ia sinonimo gisa jasota egotea, edo
- c) *Zerrendan* jasota ez egotea.

Gaiak zerrendan jasota daude

Ez dago arazorik. Erregistratu beharreko liburuan lantzen diren gaiak ondoen egokitzen zaizkien sarrerak aukeratu besterik ez da egin behar.

Gaiak erreferentzia gisa ageri dira

Erreferentzia bakoitzak sarreratzat aukeratutako sinonimo edo ia sinonimo batera bidaltzen duenez, liburuzainak edo dokumentalistak, aurreko kasuan bezala, ez du inolako arazorik sarrerak ezartzeko.

Gaiak ez daude zerrendan jasota

Halakoetan gauza bi gerta daitezke:

- a) Gaia *zerrendan* jasota egotea sarrera jakin baten azpian, baina bai sarrerarako, bai eta erreferentziarako edo erreferentziatarako —baldin eta halakorik bada— erabilitako hitza bilatutako gaiaren izenarekin bat ez etortzea, edo
- b) Gaia *zerrendan* ez agertzea.

Lehenengo kasuan, konponbidea erraza da: nahikoa da bilatutako gaiaren izena zerrendari gehitzea erreferentzia gisa eta sarrerarako aukeratutakoaren sinonimora edo ia sinonimora bidaltzea.

Bigarren kasuak konponbide zailagoa du. Liburutegiak edo zentroak honako bi aukera hauek ditu:

- a) Kontsulta egitea liburutegien arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren zentroari.
- b) Proposamen bat egin eta Eusko Jaurlaritzaren zentroari jakinaraztea.

Erreferentzia asko

Hizkuntza kontrolatu guztiek ahalik eta erreferentzia gehien izan behar dute. Horretarako, baina, *zerrendak* erreferentzia ugari izan dezan ezinbestekoa da liburuzainen eta dokumentalisten ekarpena.

Ekarpen horien zain geratzen gara.

Liburuak erregistratzean gaiak ezartzeko iradokizunak

Liburuak erregistratzean gaiak ezartzeko iradokizunak ematerakoan ez dugu azken hitza esan nahi, aitzitik, gure helburua honako hau da:

1. Batetik, gure esperientzia ezagutaraztea gazteagoak diren lankideei edota arlo honetan oraindik denbora gutxi daramatenei, eta
2. Bestetik, gaiak ezartzerakoan *zerrenda* hau erabiltzeko eskaintzen ditugun 105 adibideen zergatia azaltzea.

Zerrenda osatzen duten terminoak informazio nahiz fikzioko liburuen sarreretarako erabiltzen ditugu.

Fikzio-liburuak

1. Oro har, fikzio-liburuei ez zaie gairik jartzen. Hala ere, gero eta gehiago dira haur eta gazteentzako fikzio-liburuei gaiak ezartzen dizkieten liburutegi eta zentroak. Halaxe egiten dugu guk ere, eta fikzio-liburu bat erregistratzen dugunean sarrera eta azpisarrera sortzen ditugu. Ez dugu kontzeptu bat baino gehiago nahasten sarrera bakoitzean, horregatik, nahiago dugu liburu bakoitzari beharrezkoak diren gaiak ezartzea, betiere ahal dela gehienez ere lau, gehiago jartzea ezinbestekoa denean izan ezik.

2. Liburu-mota hauen azpisarrera batik bat formari buruzkoa izaten da. Hauek dira gehien erabiltzen ditugunak: IPUINAK, ELEBERRIAK, OLERKIAK ETA ANTZERKIA. Ez dugu adierazten liburua zein hizkuntzatan dagoen idatzita, informazio hori fitxa katalogafikoaren deskribapenean jasotzen baita eta ez gaietan. Sarreran hizkuntza adierazten den kasu bakarra hiztegiak dira.

3. Sarreretarako termino guztiak erabiltzen ditugu berdin-berdin. Era berean, ahal bada, termino berberak erabiltzen dira fikzioko liburuetarako nahiz informazio-koetarako, era batekoak edo bestekoak izan azpisarrerak aldatuta.

4. TOKIA garrantzitsua denean kontakizunean funtsezkoa delako edota informazioa berorri buruzkoa de-

lako, sarrera gisa aukeratzen dugu eta ez azpisarrera gisa. Adibidez, SALAMANCA-ELEBERRIAK. Espainiako joera kontzeptu geografiko bakarra erabiltzekoa da; horrela, NAFARROA erabiltzen dugu, eta ez SPAINIA - NAFARROA.

Jakina, izen bera duten tokien kasuan bereizteko beharrezkoa den azalpena jarri beharko da parentesi artean. Adibidez:

- ADELAIDA (Australia)
 - ADELAIDA (Hegoafrikako Errepublika)
 - BADEN (Austria)
 - BADEN (Etiopia)
 - BADEN (Suitza)
 - KORDOBA (Argentina)
 - KORDOBA (Espainia)
 - KORDOBA (Kolonbia)
- etab.

5. Era berean, kontakizuna historiaren garai jakin batean gertatzen denean, GARAIA gaitzat hartuko dugu. Garaiok hartzen dituzten denbora-tarteak luzeak edo laburrak izan daitezke. Luzeak badira, garaiak eta aroak erabiltzen ditugu (adibidez, HISTORIAURREA edo ERDI AROA) eta laburrak badira, gertaera historikoekin erlazionatu daitezke (hala nola, FRANTZIAKO IRAULTZA edo AMERIKAREN AURKIKUNTZA)

6. Halaber, gerren izenak nabarmenduko genituzke (SEZESIO-GERRA edo BIGARREN MUNDU-GERRA).

7. Aitzitik, mendeak ez ditugu sarrera gisa jartzen. Sekula ez dugu mende edo urte jakin bat sarrera gisa jartzen, non eta sarrera eratzeko erabili beharreko terminoaren osagai ez diren. Adibidez ez genuke sarrera hau erabiliko: XX. MENDEA - ELEBERRIAK.

8. Horrela, bada, Erdi aroan eta Ingalaterran gertatzen den eleberrri batean, bikingoek herrialde horretan sartu eta erasoaldiak egiten zituzten garaiari buruzkoan, zeinetan protagonistak, zenbait abentura bizitzen dituelarik, neska

ingeles batez maitemindu eta salbatu egiten duen, honako sarrera hauek aukeratuko genituzke: 1) ERDI AROA - ELEBERRIAK, 2) INGALATERRA - ELEBERRIAK, 3) BIKINGOAK - ELEBERRIAK, 4) MAITASUNA - ELEBERRIAK. Ez genuke erabiliko BIKINGOAK - INGALATERRA - ERDI AROA.

9. Azkenik, haurrentzako zenbait olerki gai ezberdinekoak biltzen dituen liburu bat badugu, gaiak zehaztu beharrean, HAURRENTZAKO OLERKIAK sarrera erabiliko dugu. Baina liburuak udaberriari buruzko olerkiak baditu, UDABERRIA - OLERKIAK izango litzateke sarrera, kasu horretan liburuak gai jakin bat duelako.

Informazio-liburuak

Haurrentzako liburugintzan indartsu sartu dira, fikzioa alde batera utzita, giza jakintzaren alderdi jakin bati buruzko ezaguerak eskaintzen dituzten liburuak edota haurren eta gazteen zaletasun edo jardueren berri ematen dutenak. Zaila eta subjektiboa da halako liburuak definitzea, horien ondoan testu-liburuak, kontsulta-liburuak edo narrazio-liburuak baititugu, gai jakin baten, eremu geografiko baten edo garai historikoren baten inguruko datu eta informazio zuzena eta zehatza eskaintzen dutelarik.

Liburu horien ezaugarri batzuk zehazten saiatuko gara:

1. Liburu horien helburua zientziaren edo ezagutza orokorraren alderdi jakin batzuei buruzko jakin-mina asetzea da.
2. Liburu horien alderdi grafikoa oso zaindua izaten da, gaur egungo haur eta nerabeei erakargarriak izan daitezkie.
3. Halako liburuak zorrotz irakurtzeko (hasieratik amaierara) nahiz gaineratik begiratzeko (orri-pasa) aukera eskaintzen dute.
4. Gaiaren edo gaien trataera batzuetan azalekoa izaten da eta fikzioko elementuak izaten dituzte.

Liburu-mota horretarako, funtzio bikoitzeko sarrera bat erabiltzen dugu, alegia: INFORMAZIO-LIBURUAK.

Oro har, liburu batek zenbait gai lantzen baditu, ia trataera entziklopedikoa emanez (*366 y más maravillas del mundo* Plaza Joven argitaletxearena edo *Mi primera enciclopedia* Molino argitaletxearena), gaiok sarrera-kopuru zentzuzkoan bildu ezin baditugu, INFORMAZIO-LIBURUAK sarrera ezartzen diogu.

Liburuan lantzen diren gaiak sarrerarik ezartzerik izanez gero, INFORMAZIO-LIBURUAK terminoa azpisarrera gisa erabiliko da.

Termino hori sarrera gisa edo azpisarrera gisa erabiltzearen auzia ebazteko, liburutegi-mota (haurrentzako liburutegia, eskolakoa...) eta liburutegiak lor dezakeen zehaztasun-maila izango da erabakigarria.

Azterlanak

Liburu horien ondoan, azterlanak daude, alegia, testu-liburuen osagarri gisa lan pertsonalak burutzeko aukera lantzen dutenak.

Oro har, gaien trataera informazio-liburuetakoa baino sakonagoa izaten da.

Azterlanak, 14 urtetik beherako haurrentzat egokiak direnean, al bait sarrerarik errazena erabiltzen saiatzen gara, liburuan lantzen diren gaiari edo gaiak AZTERLANAK azpisarrera gehitzen diegularik.

Gazteentzako liburuak Espainiako Kultura Ministerioaren arauen arabera erregistratzen dira: sarrera eta beharrezko diren azpisarrerak. Azpisarrerak gehienez ere 4 izango dira honako hurrenkera honetan: 1.a Gaia, 2.a Tokia, 3.a Kronologia eta 4.a Forma. Adibideak:

- BUENOS AIRES - HIRIGINTZA - ARAUAK
- GAZTELA ETA LEON - HISTORIA -1147-1835 - ESKULIBURUAK
- KATALUNIA - GIZA GEOGRAFIA - XX. M. - ATLASAK
- MASONERIA - ESPAINIA - XIX. M.
- MUSEOAK - TXILE - GIDALIBURUAK
- PINTURA - PARIS - XX. M. - KATALOGOAK

Gaiak izendatzeko zerrendaren erabileraren 105 adibide

1. Acosta, Vivien; y Olga Marta Pérez. *Tricolor*. La Habana: Gente Nueva, 1986. 5' urtetik aurrera.

— HAUR-KANTAK

— HAURRENTZAKO OLERKIAK.

2. Alain, Jean - Claude. *Los muchachos de Dublín*. Madrid: S.M., 1982. 12 urtetik aurrera.

— ADISKIDETASUNA - ELEBERRIAK

— GERRAK - ELEBERRIAK

— IRLANDA - ELEBERRIAK

— ASKATASUNAREN ALDEKO BORROKA - ELEBERRIAK

— ELEBERRI HISTORIKOAK

— ARAZO SOZIOPOLITIKOAK - ELEBERRIAK.

3. Alfonseca, Manuel. *Bajo un cielo anaranjado*. Madrid: S.M., 1993. 12 urtetik aurrera.

— ZIENTZIA-FIKZIOA - ELEBERRIAK

— BIZIA BESTE PLANETA BATZUETAN - ELEBERRIAK.

— ETORKIZUNEKO BIZITZA - ELEBERRIAK.

4. Alikí. *Momias de Egipto*. Barcelona: Juventud, 1992. 8 urtetik aurrera.

— EGIPTO - INFORMAZIO-LIBURUAK

— MOMIAK - INFORMAZIO-LIBURUAK.

5. Alonso, Manuel L. *Jim*. Madrid: Anaya, 1989. 8 urtetik aurrera.

— MAITASUNA NERABEZAROAN - ELEBERRIAK.

6. Alonso Ibañez, Pilar. *Camilaren joan - etorriak*. Vitoria - Gasteiz: Alegría Activity, 2002. 5 urtetik aurrera

— HAUR-JOLASAK

— JOLAS DIDAKTIKOAK.

7. Anderson, Rachel. *Unos chicos especiales*. Madrid: Alfaguara, 1993. 12 urtetik aurrera.

— EZINTASUN FISIKOA DUTEN PERTSONAK - ELEBERRIAK

— EZINTASUN PSIKIKOA DUTEN PERTSONAK - ELEBERRIAK

— GIZARTERATZEA - ELEBERRIAK.

8. Ardley, Neil. *El sonido*. Barcelona: Emeká, 1991. 8 urtetik aurrera.

— SOINUA - INFORMAZIO-LIBURUAK.

9. Aretzaga, M. Teresa. *Eta dena katu beltz baten erruz*. Bilbao : Giltza, 2005.

— ABENTURAK - ELEBERRIAK

— KATUAK - ELEBERRIAK

— FANTASIAZKO MUNDUAK - ELEBERRIAK.

10. Armijo, Consuelo. *El pamplinoplas*. Madrid: S.M., 1987. 8 urtetik aurrera.

— ADISKIDETASUNA - ELEBERRIAK

— ZAHARRAK - ELEBERRIAK

— ABENTURAK - ELEBERRIAK

— UMOREA - ELEBERRIAK

— AITONA-BILOBEN ARTEKO HARREMANA - ELEBERRIAK.

11. Arrieta de Nogueira, Maria Luz. *El final de los dioses Chibchas*. Bogotá: Kelly, 1990. 12 urtetik aurrera.

— KOLONBIA - ELEBERRIAK

— KOLONIZAZIOA - ELEBERRIAK

— INDIARRAK - ELEBERRIAK

— ASKATASUNAREN ALDEKO BORROKA - ELEBERRIAK

— ELEBERRI HISTORIKOAK.

1 Adinak ez dira jatorrizko liburuan agertzen zirenak baizik eta Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren *on-line* sarean azaltzen diren adin-sailkapen adostuak. Adin-tarteak honako hauek dira: 0-4 urte, 5-7 urte, 8-12 urte eta 12 urtetik aurrera.

12. Asimov, Isaac. *¿Cómo nacen y mueren las estrellas?* Madrid: S.M., 1990. 8 urtetik aurrera.
— IZARRAK - AZTERLANAK.
13. *Atlas de geografía universal Vox*. Barcelona: Bibliograf, 1986. 12 urtetik aurrera.
— GEOGRAFIA UNIBERTSALA - ATLASAK.
14. Barbey, Dorine, *Los cinco sentidos*. Madrid: Altea, 1991. 5 urtetik aurrera.
— ZENTZUMENAK - INFORMAZIO-LIBURUAK.
15. Barrios, Manuel. *Andalucía*. Sevilla: Algaida, 1990. 12 urtetik aurrera.
— ANDALUZIA - OHITURA ETA USADIOAK.
16. Barruetaña, Edorta. *Olentzero New Yorken*. Zornotza [Bizkaia]: Bizkaiko Ikastolen Elkarte, 2005. 5 urtetik aurrera
— EGUBERRIAK - IPUINAK
— OLENTZERO - IPUINAK.
17. Beck, Martine. *El sueño y los sueños*. Madrid: Altea, 1990. 5 urtetik aurrera.
— LOA - INFORMAZIO-LIBURUAK
— AMETSAK - INFORMAZIO-LIBURUAK.
18. Bellamy, David. *La nave tierra*. Madrid: Debate, 1992. 8 urtetik aurrera.
— EKOLOGIA - INFORMAZIO-LIBURUAK.
19. Bennet, Jack. *El viaje del «Lucky Dragon»*. Madrid: S.M., 1985. 12 urtetik aurrera.
— PROTAGONISTAK BERE BURUA GARATZEA - ELEBERRIAK
— FAMILIA - ELEBERRIAK
— GERRAOSTEA - ELEBERRIAK
— ITSAS BIDAIAK - ELEBERRIAK
— VIETNAM - ELEBERRIAK.
20. Berenguer, Carmen. *El Rey mocho*. Caracas: Ekaré, 1981. 5 urtetik aurrera.
— ERREGI-ERREGINAK - IPUINAK.
21. Bernal Pinilla, Luis Darío. *Carnavalito*. Bogotá: Tres Culturas, 1990. 8 urtetik aurrera.
— IGARKIZUNAK
— HAURRENTZAKO OLERKIAK
— AHO-KORAPILOAK.
22. Beuchat, Cecilia; y Clementina Maldonado. *Un ratón de biblioteca*. Santiago de Chile: Andrés Bello, 1989. 8 urtetik aurrera.
— TXILEKO IPUINAK.
23. Bishop, Owen. *Aventuras con microorganismos*. Barcelona: Labor, 1998. 12 urtetik aurrera.
— MIKROORGANISMOAK - ESPERIMENTUAK.
24. Broutin, Christian. *El barco*. Madrid: S.M., 1992. 5 urtetik aurrera.
— ITSASONTZIAK - INFORMAZIO-LIBURUAK.
25. Browne, Anthony. *Jon eta Beñat*. Donostia - San Sebastián: Hiria, 2005. 4 urtera arte.
— ADISKIDETASUNA - IPUINAK
— ANIMALIA GIZAKARAK - IPUINAK.
26. Burningham, John. *Contrarios*. Madrid: Altea, 1986. 5 urtetik aurrera.
— INGURUNEAREN EZAGUTZA
— AURKAKOAK.
27. Butterworth, Nick. *Mi mamá es fantástica*. Madrid: Anaya, 1990. 4 urtera arte.
— AMAK - IRUDI-LIBURUAK.
28. *Cantemos siempre*. Asunción: [s.n.], 1987. 12 urtetik aurrera.
— HAUR-KANTAK
— LATINOAMERIKAKO HERRI-KANTAK.
29. Caselli, Giovanni. *Las primeras civilizaciones*. Madrid: Anaya, 1985. 8 urtetik aurrera.
— LEHEN ZIBILIZAZIOAK - AZTERLANAK.
30. Charrier, Michel. *Me voy de viaje*. Madrid: Anaya, 1989. 8 urtetik aurrera.
— GARRAIOAK
— BIDAIAK
— HAURREN HIZTEGIAK.
31. Coffrant, Christophe. *Yo, Vivaldi*. Madrid: Anaya, 1992. 12 urtetik aurrera.
— MUSIKARIAK - BIOGRAFIK
— VIVALDI, ANTONIO - BIOGRAFIK.
32. Company, Mercé. *La historia de Ernesto*. Madrid: S.M., 1986. 5 urtetik aurrera.
— ADOPZIOA - IPUINAK
— MAITASUNA - IPUINAK
— FAMILIA - IPUINAK.

33. *Cuentos cortos de la tierra larga*. Santiago de Chile: Andrés Bello, 1989. 8 urtetik aurrera.
— TXILEKO IPUINAK.
34. Curto, Rosa María. *¡Qué hay en el jardín!* Barcelona: La Galera, 1990. 5 urtetik aurrera.
— NATURAREN EZAGUTZA
— LORATEGIAK.
35. Denou, Violeta. *La granja de Teo*. Barcelona: Timun Mas, 1990. 5 urtetik aurrera.
— BASERRIKO ANIMALIAK
— ANIMALIEN EZAGUTZA
— BASERRIAK.
36. Dever, Joe. *Huida de la oscuridad*. Madrid: Altea, 1991. 12 urtetik aurrera.
— FANTASIA - ELEBERRIAK
— GERRARIAK - ELEBERRIAK
— LIBURU ELKARRERAGILEAK
— ALEGIAZKO MUNDUAK - ELEBERRIAK.
37. Díaz Velázquez, Mariano. *Diccionario básico de matemáticas*. Madrid: Anaya, 1988. 12 urtetik aurrera.
— MATEMATIKA - HIZTEGIAK.
38. Díaz Viana, Luis. *El Romancero*. Madrid: Anaya, 1990. 12 urtetik aurrera.
— ERROMANTZEAK.
39. *Diccionario manual English - Spanish Español - Inglés*. Barcelona: Bibliograf, 1993. 12 urtetik aurrera.
— GAZTELANIA - HIZTEGIAK - INGELESA
— INGELESA - HIZTEGIAK - GAZTELANIA.
40. *Diccionario visual Altea de las cosas de cada día*. Madrid: Altea, 1992. 12 urtetik aurrera.
— EGUNEROKO BIZITZA - INFORMAZIO-LIBURUAK.
41. *España*. Madrid: Anaya: Touring, 1990. 12 urtetik aurrera.
— ESPAINIA - TURISMOKO GIDALIBURUAK.
42. Fahrman, Willi. *El cuarto rey mago*. Madrid: S.M., 1992. 12 urtetik aurrera.
— EGUBERRIAK - ELEBERRIAK
— ERREGI MAGOAK - ELEBERRIAK
— BIDAIAK - ELEBERRIAK.
43. Farndon, John. *El tiempo*. Madrid: S.M., 1992. 8 urtetik aurrera.
— METEOROLOGIA - INFORMAZIO-LIBURUAK.
44. Fax, André. *Los primitivos actuales*. Madrid: S.M., 1986. 12 urtetik aurrera.
— HERRI PRIMITIBOAK - AZTERLANAK.
45. Gandiol - Coppin, Brigitte. *Las catedrales*. Madrid: Altea, 1991. 5 urtetik aurrera.
— KATEDRALAK - INFORMAZIO-LIBURUAK.
46. Gómez Yebra, Antonio A. *Muñeco de nieve*. Madrid: Escuela española, 1992. 8 urtetik aurrera.
— ELURREZKO PANPINAK - ANTZERKIA
— EGUBERRIAK - ANTZERKIA.
47. González de Zechrisson, Hena. *Chispita y Paquita*. Panamá: Imprenta Universitaria, 1998. 5 urtetik aurrera.
— BIKIAK - IPUINAK.
48. Gosciny, René. *El pequeño Nicolás*. Madrid: Alfaguara, 1985. 8 urtetik aurrera.
— ESKOLAK - ELEBERRIAK
— UMOREA - ELEBERRIAK
— BIHURRIKERIAK - ELEBERRIAK.
49. Guerrero, Andrés. *¡Este pijama está loco!* Madrid: Anaya, 1991. 5 urtetik aurrera.
— GAUA - IPUINAK
— EGUNEROKO BIZITZA - IPUINAK.
50. Haar, Jaap ter. *El mundo de Ben Lighthart*. Madrid: S.M., 1983. 12 urtetik aurrera.
— ADISKIDETASUNA - ELEBERRIAK
— ITSUAK - ELEBERRIAK
— GURASOEN ETA SEME-ALABEN ARTEKO HARREMANA - ELEBERRIAK
— ELKARTASUNA - ELEBERRIAK
— HOBETZEA - ELEBERRIAK.
51. Halasi, María. *Primer reportaje*. Madrid: S.M., 1990. 12 urtetik aurrera.
— ADISKIDETASUNA - ELEBERRIAK
— KAZETARITZA - ELEBERRIAK
— AMAREN ETA SEME-ALABEN ARTEKO HARREMANA - ELEBERRIAK.
52. Hall, Derek. *El oso polar*. Madrid: Anaya, 1986. 5 urtetik aurrera.
— ANIMALIEN EZAGUTZA
— HARTZAK.

53. Herra, Rafael Ángel. *Viaje al reino de los deseos*. San José (Costa Rica): Universidad, 1992. 12 urtetik aurrera.
- ABENTURAK - ELEBERRIAK
 - NAHIAK - ELEBERRIAK
 - FANTASIA - ELEBERRIAK
 - ALEGIAZKO MUNDUAK - ELEBERRIAK.
54. Herrera, Juan Ignacio. *Lope y su amigo indio*. Madrid: Anaya, 1988. 8 urtetik aurrera.
- ADISKIDETASUNA - ELEBERRIAK
 - LARRUGORRIAK - ELEBERRIAK
 - DENBORA - BIDAIAK - ELEBERRIAK.
55. Heydenreich, Ludwig H. *Arquitectura en Italia 1400 - 1600*. Madrid: Cátedra, 1991. 12 urtetik aurrera.
- ARKITEKTURA - ITALIA - XV - XVII. M.
56. *Imaginario*. Madrid: S.M., 1992. 5 urtetik aurrera.
- HAURRENTZAKO HIZTEGIAK.
57. Iturralde, Joxemari. *Argitxo inauterietan*. Zamudio: EHIK, [2005]. 5 urtetik aurrera.
- IRATXOAK - IPUINAK
 - INAUTERIAK - IPUINAK.
58. Joly - Berbesson, Fanny. *Bautista y el dentista*. Madrid: Anaya, 1990. 5 urtetik aurrera.
- DENTISTAK - IPUINAK
 - HAURREN BELDURRAK - IPUINAK.
59. Kaster, Erich. *La conferencia de los animales*. Madrid: Alfaguara, 1988. 8 urtetik aurrera.
- ANIMALIA GIZAKARAK - ELEBERRIAK
 - BAKEZALETASUNA - ELEBERRIAK.
60. Kersten, Detlef. *El comisario Nickel*. Madrid: Altea, 1985. 8 urtetik aurrera.
- POLIZIA - KASUAK
 - DETEKTIBEAK
 - JOLAS - LIBURUAK.
61. Klein, Robin. *Volvi a mostrarte que podía volar*. Madrid: Anaya, 1991. 12 urtetik aurrera.
- ADISKIDETASUNA - ELEBERRIAK
 - FAMILIA-GATAZKAK - ELEBERRIAK
 - DROGAZALEAK - ELEBERRIAK.
62. Kurusa. *La calle es libre*. Caracas: Ekaré, 1983. 8 urtetik aurrera.
- AUZOAK - IPUINAK
 - HIRIAK - IPUINAK
 - ARAZO SOZIOPOLITIKOAK
 - ELKARTASUNA - IPUINAK.
63. Lairla Pérez, Sergio. *El Botón Antón y la Botona Ramona*. Zaragoza: Edelvives, 1991. 5 urtetik aurrera.
- MAITASUNA - POESÍA
 - GIZARTE-KLASEAK - OLERKIAK
 - GAUZA BIZIDUNAK - OLERKIAK.
64. MacNaughton, Colin. *Loco por el fútbol*. Madrid: Altea, 1988. 5 urtetik aurrera.
- ANIMALIA GIZAKARAK - IPUINAK
 - FUTBOLA - IPUINAK
 - HARTZAK - IPUINAK.
65. Mahy, Margaret. *El secuestro de la bibliotecaria*. Madrid: Altea, 1988. 8 urtetik aurrera.
- BIDELAPURRAK - IPUINAK
 - LIBURUZAINAK - IPUINAK
 - NORTASUNAREN ALDAKETAK - IPUINAK
 - BAHIKETAK - IPUINAK.
66. Mateos, Pilar. *Historias de ninguno*. Madrid: S.M., 1987. 8 urtetik aurrera.
- ADISKIDETASUNA - ELEBERRIAK
 - TXIKIAK - ELEBERRIAK
 - ESKOLAK - ELEBERRIAK
 - FANTASIA - ELEBERRIAK
 - IRUDIMENA - ELEBERRIAK.
67. Mettler, René. *La flor*. Madrid: S.M., 1991. 5 urtetik aurrera.
- LOREAK - INFORMAZIO-LIBURUAK.
68. Mirones Inzunza, Bernardo. *Windows 3.1*. Madrid: Anaya Multimedia, 1993. 12 urtetik aurrera.
- ORDENAGAILU-PROGRAMAK
 - SISTEMA ERAGILEAK.
69. Nava, Marinella. *¡Qué miedo en el castillo!* Madrid: Montena, 1986. 4 urtera arte.
- GAZTELUAK - IPUINAK
 - UMOREA - IPUINAK
 - JOLAS-LIBURUAK.
70. Niño, Hugo. *Primitivos relatos contados otra vez*. Bogotá: Carlos Valencia, 1987. 12 urtetik aurrera.
- AMAZONIAR MITOLOGIA.

71. Norton, Mary. *Los incursores*. Madrid: Altea, 1985. 12 urtetik aurrera.
— FANTASIA - ELEBERRIAK
— PERTSONAIA ÑIMIÑOAK - ELEBERRIAK.
72. Nostlinger, Christine. *Querida Susi, querido Paul*. Madrid: S.M., 1985. 5 urtetik aurrera.
— ADISKIDETASUNA - ELEBERRIAK
— ANIMALIENGANAKO MAITASUNA - ELEBERRIAK
— ESKUTITZAK - ELEBERRIAK
— ESKOLAK - ELEBERRIAK.
73. Oxenbury, Helen. *La familia*. Barcelona: Juventud, 1983. 5 urtetik aurrera.
— INGURUNEAREN EZAGUTZA
— FAMILIA.
74. *Pájaroflor: selección de poemas iberoamericanos*. Montevideo: Asociación Uruguaya de Literatura Infantil - Juvenil, 1990. 8 urtetik aurrera.
— HAURRENTZAKO OLERKIAK
— LATINOAMERIKAKO OLERKIAK.
75. Panini, Giorgio P. *¿Cómo es el átomo?* Madrid: Montena, 1982. 12 urtetik aurrera.
— ATOMOAK - AZTERLANAK
— ENERGIA ATOMIKOA - AZTERLANAK.
76. Parramón, José María. *Mi escuela*. Barcelona: Parramón, 1988. 5 urtetik aurrera.
— INGURUNEAREN EZAGUTZA
— ESKOLAK.
77. Paz, Marcela. *Papelucho*. Barcelona: Pomaire, 1962. 12 urtetik aurrera.
— ANAI-ARREBAK - ELEBERRIAK
— HAUR GOIZTIARRAK - ELEBERRIAK.
78. Pérez, Joseph. *La España del siglo XVI*. Madrid: Anaya, 1991. 12 urtetik aurrera.
— SPAINIA - HISTORIA - XVI. M.
79. Peri Fagerstrom, René. *Cuentos pascuales*. Santiago de Chile: La Noria, 1987. 12 urtetik aurrera.
— IPUINAK - ANTOLOGIA.
80. Perrault, Charles. *El gato con botas*. Madrid: Anaya, 1988. 5 urtetik aurrera.
— ANIMALIA GIZAKARAK - IPUINAK
— AZKARTASUNA - IPUINAK
— HERRI-IPUINAK
— KATU BOTADUNA.
81. Pimentel Góes, Lucía. *Luzul, el muchacho especial*. Buenos Aires: Plus Ultra, 1980. 12 urtetik aurrera.
— BASERRITARRAK - ELEBERRIAK
— ZIENTZIA-FIKZIOA - ELEBERRIAK
— ESTRALURTARRAK - ELEBERRIAK.
82. Piñol, Roser. *Crea con plastilina*. Barcelona: Parramón, 1993. 5 urtetik aurrera.
— ESKULANAK
— PLASTILINA - ESKULANAK.
83. Posonda Nadal, Jorge. *¿Qué piratas!* Madrid: S.M., 1989. 8 urtetik aurrera.
— PIRATAK - ANTZERKIA.
84. Preussler, Otfried. *Agustina la payasa*. Madrid: S.M., 1989. 5 urtetik aurrera.
— PROTAGONISTAK BERE BURUA GARATZEA - IPUINAK
— ZIRKUA - IPUINAK
— PAILAZOAK - IPUINAK
— SEXISMOA - IPUINAK.
85. *¿Qué será, qué no será?* Caracas: Ekaré, 1986. 8 urtetik aurrera.
— IGARKIZUNAK
— HAUR-ERRIMAK.
86. Regas, Qim. *Barcelona 92*. Barcelona: Plaza Janés: Círculo de Lectores, 1992. 12 urtetik aurrera.
— OLINPIAR JOKOAK - BARCELONA - 1992.
87. Ribero Oramas, Rafael. *El hojarasquerito del monte*. Caracas: Ekaré, 1985. 5 urtetik aurrera.
— ANIMALIAK - IPUINAK
— HERRI - IPUIN KREOLAK.
88. Rius, María. *El campo*. Barcelona: Parramón, 1986. 5 urtetik aurrera.
— LANDA
— NATURAREN EZAGUTZA.
89. Rubio Tobar, Joaquín. *La narrativa medieval*. Madrid: Anaya, 1990. 12 urtetik aurrera.
— ELEBERRIA - ERDIAROA.
90. Sánchez, Isidro. *Acuarela*. Barcelona: Parramón, 1991. 5 urtetik aurrera.

— PINTURA-TEKNIKAK - INFORMAZIO-LIBURUAK.

91. Sierra i Fabra, Jordi. *La balada del Siglo XXI*. Madrid: S.M., 1989. 12 urtetik aurrera.

— KONTSUMISMOA - ELEBERRIAK

— GAZTAROA - ELEBERRIAK

— ROCK MUSIKA - ELEBERRIAK

— GIZARTE-ARAZOAK - ELEBERRIAK.

92. Sotwe, Harriet Beecher. *La cabaña del tío Tom*. Madrid: Anaya, 1992. 12 urtetik aurrera.

— ESKLABOTASUNA - ELEBERRIAK

— BELTZAK - ELEBERRIAK

— ARRAZISMOA - ELEBERRIAK.

93. *Tajín y los siete truenos*. México: Promesa, 1983. 5 urtetik aurrera.

— MEXIKOKO ELEZAHARRAK.

94. Taylor, Bárbara. *El río*. Madrid: Anaya, 1993. 8 urtetik aurrera.

— IBAIKO ANIMALIAK - INFORMAZIO-LIBURUAK.

95. Thomson, Ruth. *Colores*. Madrid: Anaya, 1986. 5 urtetik aurrera.

— KOLOREAK

— INGURUNEAREN EZAGUTZA.

96. Townsend, John Rowe. *El castillo de Noé*. Madrid: S.M., 1980. 12 urtetik aurrera.

— GIZARTE - KRITIKA - ELEBERRIAK

— GOSEA - ELEBERRIAK

— FAMILIA - HARREMANAK - ELEBERRIAK.

97. Van Leeuwen, Jean. *Cuentos del cerdito Oliver*. Madrid: Alfaguara, 1986. 5 urtetik aurrera.

— ANIMALIA GIZAKARAK - IPUINAK

— TXERRIAK - IPUINAK

— FAMILIA-HARREMANAK - IPUINAK

— EGUNEROKO BIZITZA - IPUINAK.

98. Vanden Broeck, Fabricio. *ABC animales*. México: Patria: Fundación E. Gutman, 1987. 5 urtetik aurrera.

— ALFABETOAK

— ANIMALIAK.

99. Vara, Mariano. *La Kumari*. Madrid: Altea, 1988. 8 urtetik aurrera.

— MAITASUNA NERABEZAROAN - ELEBERRIAK

— INDIA - ELEBERRIAK

— INDIAKO MITOLOGIA - ELEBERRIAK.

100. Vásquez, Samuel. *El sol negro*. Bogotá: Colcultura, 1992. 12 urtetik aurrera.

— PIRATAK - ANTZERKIA

— ALTXORRAK - ANTZERKIA.

101. Vries, Anke de. *Belledonne, habitación 16*. Madrid: S.M., 1981. 12 urtetik aurrera.

— KRIMENAK - ELEBERRIAK

— MISTERIOA - ELEBERRIAK

— POLIZIA-ELEBERRIAK

— BIGARREN MUNDU-GERRA - ELEBERRIAK.

102. West, Colin. *El castillo del rey Sisebuto*. Madrid: Anaya, 1987. 5 urtetik aurrera.

— ERRIMA KATEATUAK.

103. Wilkes, Ángela. *Cosas calientes*. Madrid: Anaya, 1987. 5 urtetik aurrera.

— SUKALDARITZAKO ERREZETAK.

104. Wustmann, Erich. *Hrenki*. Madrid: S.M., 1985. 12 urtetik aurrera.

— AMAZONIA - ELEBERRIAK

— KOLONIZAZIOA - ELEBERRIAK

— EKOLOGIA - ELEBERRIAK

— INDIARRAK - ELEBERRIAK.

105. Yarza Luaces, Joaquín. *El arte bizantino*. Madrid: Anaya, 1991. 12 urtetik aurrera.

— BIZANTZIAR ARTEA - AZTERLANAK.

Zerrenda prestatzeko erabilitako iturri nagusiak

1. Agostini = *Diccionario Geográfico de Agostini*. Barcelona: Planeta-Agostini, 1988. 4 libk.
2. Banco del Libro = Alberto Villalón. *Tesaurus de literatura infantil...* Caracas: Banco del Libro, 1991. 587 or.
3. Bermejo Gordon, Amalia. *Apéndice a la Bibliografía básica para bibliotecas infantiles y juveniles 1985-88*. Madrid: Dirección General del Libro y Bibliotecas, 1989. 193 or.
4. Britannica = *The New Encyclopaedia Britannica*, 15th edition. Chicago, 1990. 32 libk.
5. DEA = *Diccionario Enciclopédico Abreviado*.
7. argit. Madrid: Espasa-Calpe, 1975. 7 libk. eta 2 gehigarriak.
6. DEI = *Diccionario Enciclopédico Ilustrado de la Lengua Española*. Barcelona: Editorial Ramón Sopena, 1976. 4 libk.
7. *Diccionario Metodológico* = Pierre Vigier et al. Inédito.
8. *Diccionario Real de la Lengua Española*. Madrid. Editorial Portada, S.A. 18 libk.
9. DRAE = España. Real Academia española. *Diccionario de la Lengua Española*. Madrid, 1984, 2 libk.
10. *Encabezamientos de materia: Normativa para su redacción*. Madrid: ministerio de Cultura: Biblioteca Nacional, 1991. 94 or.
11. *Encabezamientos de materia para bibliotecas de la Comunidad de Madrid*. Madrid: Consejería de Cultura, 1990. 969 or.
12. *Enfants, autorité matière*. París: Bibliothèque publique d'information: Centre Georges Pompidou, 1989. 81 or.
13. España. Ministerio de Cultura. Dirección general del Libro y Bibliotecas. *Bibliografía básica para bibliotecas infantiles y juveniles*. Madrid, 1986. 341 or.
14. Fundación GSR = Fundación Germán Sánchez Ruipérez. Centro de Documentación de Literatura Infantil y Juvenil, Salamanca, España.
15. García Pelayo y Gross, Ramón. *Pequeño Larousse Ilustrado*. Barcelona: Larousse, 1986. 1.633 or.
16. *Gran Enciclopedia Larousse*. Barcelona: Planeta, 1990. 12 libk. 11.808 or.
